# EUSKAL MENDIZALETASUNAREN XXII FESTA
## XXII GALA DEL MONTAÑISMO VASCO

ARGAZKIAK: JOXEAN ZURIBELTZ


EMF eta Pyrenaica Sarituak San Ignacio Basotxok Europa Jauregian antolatutako Festako protagonista guztien babesean

Otsailaren 16an, San Ignacio Basotxo Mendi Klubak antolatuta, Euskal Mendizaletasunaren XXII. Gala dotorea ospatu zen Gasteizko Europa Jauregian.

Aukera horretarako Oinarrizko Kanpaleku gisan atondutako agertokia, eta eszenifikazio fresko, bizi eta ikusgarri bat, aktore izan zirenek bikain emana. San Ignacio Basotxo Mendi Klubak goia jo zuen antolakuntzan, Gala berritu bat, espektakulu bihurtua eskainiz.

Arin pasatu zitzaizkien Maria de Maeztu aretoa bete zuten 400 bat lagunei saioko bi orduak. Bideoak, esketxak, ikuskizunak, dantza, musika, aurkezleen gertutasuna, dena izan zen gozagarri. Eta sariak. Pyrenaica aldizkariarenak eta Euskal Mendi Federazioarenak. Azpimarratzekoa saritu guztiak bertan egon izana. Haien artean, izen ezagunak: Patxi Usobiaga, Javi Domínguez, Josu Iztueta… Dibulgatzaile eta inspiratzaileak, Mati Sanz Rebato, Gorka Zubeldia, Xabi Mujika, Paco eta Jose Luis Solana,… Klub eredugarriak, Urdaburu, Candanchu Ski Alp,. Momentu hunkigarriena eta txalotuena, 2016an zendutako Angel Nuñori saria aitortu zitzaionekoa, haren seme eta anaiak bere irudia agertzen zuen argazki-koadroa jaso zuten oparitan, Galak iraun zuen bitartean Diego Berruete *Sinpa* grafiteroak marraztua agertokian bertan.

Agintari ordezkaritza ere oparoa: Gorka Urtaran, Vitoria-Gasteizko alkatea; Jose Ramón Alonso eta Leire Salazar, Euskal Mendi Federazioaren presidentea eta presidente ordea; Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Federazioetako presidenteak: Javier Calvo, Victor Vivar eta Laureano Urkiza; gonbidatu gisa Martin Montañés, Nafar Federakundearen presidentea.

Elorrioko Erdella MendizaleTaldeak hartu du lekukoa 2019koa antolatzeko. Europa Jauregian gertatutakoak adi jarraitu zituzten. Lanerako daude, beraz asmatuko dute, haiek ere, Euskal Mendizaletasunaren Festari distira ematen.


Leire Salazar (EMF Presidente ordea), Jose Ramon Alonso (EMF Presidentea), Gorka Urtaran (Vitoria-Gasteizko Alkatea) eta Carlos Zapatero (Herritarren Segurtasunaren Saileko zinegotzia)

## PREMIOS EMF - EMF SARIAK

### PREMIO DE CARRERAS POR MONTAÑA - MENDIKO LASTERKETEN SARIA

**JAVIER DOMÍNGUEZ LEDO**

Corredor, esquiador, andarín, amante de la montaña. Ultracorredor. Último ganador con record incluido de la Tor des Geants (330 km, 24 000 m D+), una de las pruebas por montaña más duras y salvajes del momento. Y en nuestros montes, cuádruple vencedor de Ehun Millak (168 km, 11 000 m D+).

### PREMIO “ANDRES ESPINOSA” A LA MEJOR ACTIVIDAD ALPINA – “ANDRES ESPINOSA” SARIA JARDUERA ALPINISTIKO ONENARI

**ESPELEOLOGÍA EN LARRA**

El estudio del entramado cárstico de Larra es considerado como una auténtica expedición, donde existe su campo base y un montón de gente procesando datos digitalmente de lo que van encontrando. Están levantando topográficamente en 3D todo el complejo de Larra. Llevan cinco años de trabajo y estiman dos más para terminar este relevante proyecto.

### PREMIO “ANGEL SOPEÑA” A LA MEJOR ACTIVIDAD DE ESCALADA DEPORTIVA – “ANGEL SOPEÑA” SARIA KIROL ESKALADAKO JARDUERA ONENARI

**PATXI USOBIAGA**

Premio a una larga trayectoria que refleja compromiso, constancia y superación. Fue Campeón del Mundo de dificultad (China 2009) y doble campeón de la Copa del Mundo de la modalidad (2006 y 2007). En el 2017 volvió a superarse con líneas exigentes como *Pachamama* 9a+/b (Oliana, Lérida), el 10 de noviembre, y *Papichulo* 9a+ (Oliana, Lérida), el 21 de marzo. Y apunta a más,

porque dice que esos logros son "parte del proceso", un proceso que no tiene límites.

### PREMIO "ANTXON BANDRES" A LA MÁS INTERESANTE ACTIVIDAD O COLABORACIÓN – "ANTXON BANDRES" SARIA KOLABORAZIO INTERESGARRIENARI

**JOSU IZTUETA AZKUE**

Junto a su amigo Ángel Ortiz, creador de la Nairobitarra, partiendo de dos viejos camiones de mudanza trasformados en autobuses de viaje. 20 años de rodaje por todo el mundo. Paralelamente o a posteriori, viajes y expediciones a Groenlandia, Alaska, Escandinavia, al fondo de los continentes,… y hoy en día a muchos otros destinos con el fin de guiar a sus clientes, a sus amigos, en viajes organizados a atractivos destinos. En la Gala recibió el premio que lleva el nombre de su mentor, Antxon Bandres, admirado y respetado hasta el punto de crear en su homenaje una biblioteca viajera de libros y revistas en Tolosa (2012), un lugar de encuentro entre viajeros para intercambio de ideas, ofrecer charlas y talleres.

### PREMIO "ANDRES DE REGIL" A LA MEJOR ACTIVIDAD DE ESQUÍ DE MONTAÑA – "ANDRES DE REGIL" SARIA MENDIKO ESKIKO JARDUERA ONENARI

**CANDANCHÚ SKI ALP**

En marzo del 2010 se creó el Candanchú Ski Alp. Un grupo de personas que se caracterizan por su iniciativa y aportación al mundo de la competición del esquí de montaña. Es el club organizador de la Causiat Extreme entre otras, prueba de referencia que este año ha sido Campeonato de Euskal Herria y de España individual.

### PREMIO LABORAL KUTXA A LA TRAYECTORIA / HISTORIAL – LABORAL KUTXA SARIA IBILBIDEARI

**URDABURU MENDIZALE ELKARTEA**

Urdaburu Mendizale Elkartea nace un 13 de Febrero de 1942 en el bar Domingo de Rentería, con lo que 2017 fue un año de celebraciones del 75 aniversario. Uno de los clubs más activos de Euskal Herria, siempre ha mostrado especial implicación en las encomiendas federativas, a tal punto de que quien fuera presidente del club durante sus primeros años (1942-1954), Pedrotxo Otegi, fue posteriormente Presidente de la Federación Vasco Navarra entre 1957 y 1967.

### PREMIO "AMIGOS DEL MONTAÑISMO VASCO" – "EUSKAL MENDIZALETASUNAREN ADISKIDEAK" SARIA

**ÁNGEL NUÑO ALBACETE** (fallecido en 2016)

Trasladó junto con su club, el Iturribero, y durante más de una década, su pasión por la montaña a los montañeros y montañeras más pequeños de Álava. Empeñado en la transmisión de los valores de la montaña, ha empapado de conocimiento montañero a miles de futuros practicantes de nuestro Deporte.

### PREMIO "LOLI LOPEZ GOÑI" A LA APORTACIÓN FEMENINA EN LA DIVULGACIÓN Y CONOCIMIENTO DE LOS MONTES VASCOS – "LOLI LOPEZ GOÑI" SARIA EUSKAL MENDIEN ZABALKUNDEAN ETA EZAGUTZAN EMAKUMEEK EGINDAKO EKARPENARI

**MATI SANZ REBATO**

Si hay una persona con tesón y capacidad desbordada por dar a conocer la geografía de nuestro país esa persona es Mati. Incansable, soñadora y entregada en cuerpo y alma en la labor de dar a conocer y documentar valles y montes que tenemos en nuestro entorno. Una pluma prodigiosa, tenaz, ilusionante e inspiradora que nos invita a recorrer los pasos que previamente ha recorrido para darnos a conocer nuestra geografía y cultura más recóndita y cercana a la vez, "los pequeños desconocidos", señala ella.

### MARCHAS LARGO RECORRIDO – IRAUPEN LUZEKO IBILALDIEN "SHEVE PEÑA" SARIA

**GORKA ZUBELDIA LETAMENDIA**

En la edición 2017 de Zirkuitua han sido un total de 60 los y las finalistas que han completado un mínimo de 8 marchas de las 20 que componían el circuito. Entre ellos han elegido a este marchador de Alegia, socio del club Intxurre, por ser "la persona más cercana a la filosofía que en su día nos inculcó Shebe Peña". Gorka Zubeldia desea que este premio consiga poner en marcha algún proyecto de ayuda para que las personas con discapacidades puedan explorar montañas.

## XXXV PREMIOS PYRENAICA / PYRENAICA SARIAK XXXV. EDIZIOA

### XXXIV.MENDI ARTIKULUEN LEHIAKETA - XXXIV CONCURSO DE ARTÍCULOS DE MONTAÑA

1º. *Nafarroa, tierra de contrastes.*
**RAFAEL BARTOLOMÉ RESANO**
2º. *Vuelta al Monte Perdido en cinco etapas.*
**TXARO IGLESIAS LAREO**
3º. *Fitz Roy eta Cerro Torre inguratuz.*
**UNAI ALTUNA ETXEBERRIA**

### XXXV. MENDI ARGAZKIEN LEHIAKETA - XXXV CONCURSO DE FOTOGRAFÍA DE MONTAÑA

1º. *Bardenas. El silencio de las pisadas del viento.*
**MARTÍN ZALBA**
2º. *Aralar.* **PACO Y JOSÉ LUIS SOLANA**
3º. *Corredores invernales.* **JON ANDER RABADAN**

### PYRENAICAKO EMAKUMEEN BLOGAREN VIII. SARIA - VIII CONCURSO DEL BLOG MUJERES DE PYRENAICA (ITZIAR LAZURTEGI MATEOS)

·Bisita gehien izan dituen sarrera - Entrada con mayor número de visitas:
*Montes Solidarios por los Montes de Vitoria*
**ESTHER MERINO**
·Sarrera gehien izan dituen kolaboratzailea - Colaborador/a con mayor número de entradas
**MATI SANZ REBATO** (Hamlet)

### PYRENAICAKO BLOGAREN II. SARIA - II CONCURSO DEL BLOG DE PYRENAICA

·Bisita gehien izan dituen sarrera - Entrada con mayor número de visitas:
*Urresteiko ertza (Atxarte)* - **AINHOA LENDINEZ**
·Sarrera gehien izan dituen kolaboratzailea - Colaborador/a con mayor número de entradas
**XABI MUJIKA** (Smithy)

EMF-FVM Komunikazioa.



Javi Domingezek hunkituta jaso zuen Mendiko Lasterketen EMF Saria bere lagun Fernando Marinen (Basotxo ME-ko Presidentea) eskutik



Josu Iztuetak Leire Salazar (EMF Presidente ordea) eta José Ramón Alonso (EMF Presidentea) izan zituen 'Antxon Bandres' EMF Sari emale



Patxi Usobiaga bere eskalada markak gainditzen ari da lehiaketa utzi eta hamar urtera, horregatik eman zion Irati Andak (EMF Zuzendari Teknikoa) 'Angel Sopeña' EMF Saria

# BILBAO MENDI FILM FESTIVAL

## MUGARRI GUZTIAK GAINDITZEN ARI DEN EUSKAL MENDI ZINEMALDIAK 10 URTE BETE DITU




Euskalduna Jauregiko inaugurazio ekitaldian 1200 lagun bildu ziren, sarrerak agortuz

*Dirtbag: The Legend of Fred Beckey* filma gailendu zen Bilbao Mendi Film Festivalen 10. edizioan. Hark jaso zituen Urrezko Eguzkilorea eta saritako 6.000 euroak. Eta noski, baita publikoaren aitortza ere, besteren artean, Ikuslegoaren Saria ere irabazi baitzuen.

Iragan abenduan izan zen. Erruz bildu zen jendea Bilbora jaialdiko 10 egunetan, 10.371 ikusle, BBK aretoan, Euskalduna Jauregian, nahiz Bizkaiko Abokatuen Bazkunean eskainitako eserleku kopuruaren %76a betez, eta hainbat saiotako txartelak agortuz. Aurreko edizioan jarri zen langa %12an gainditu da. Aintzat hartzeko datuak dira, mendia eta kultura uztartzen dituen ekitaldi hau Bilbon, eta Euskal Herrian, sendo errotu denaren isla. Eta harrokeriak alde batera utzita, Mendi zinemagintzan munduko erreferentzietako bat da Bilbo, industria horretako ekoiztetxeentzat ezinbesteko erakusleihoa, atletentzat bilgunea, eta publikoarentzat hitzordu finkoa.

Gasteizen lehen lau urteak, Bilbon ondorengo seiak, Eduardo Martinezek eta Jabier Baraiazarrak abiarazi zuten "euskal mendi zinemaldiak" pasiotik adina izan duela lan nekezetik. Eta hau da daukaguna: Lynn Hill, Catherine Destivelle, Josune Bereziartu, Edurne Pasaban, Peter Habeler, Jack Tackle, Pou Anaiak, Mikel Zabalza, Bernadette McDonald, Katie Ives, Lara Izagirre, Paul Urkijo, Jesus Mari Lazkano, Kinga Ociepka, Alizé Carrère, Jochen Schmoll, Dave O'Leske, Juanjo San Sebastián, Josu Iztueta, Luisa Alonso-Cires, Miguel Angulo,... agertokian jartzeko gai den jaialdia. Alpinistak, esploratzaileak, eskalatzaileak, eskiatzaileak, piraguistak, espeleologoak, ingurumen aktibistak, zinegileak, idazleak, ekoizleak, margolariak, dibulgatzaileak, kazetariak, musikariak, konposatzaileak... uzta oparoa ematen du neguaren atarian Mendifilm baratzeak.

Mendi Tour zirkuitua da, gero, horren guztiaren erakustoki ibiltaria, jaialdian nabarmendu diren filmak berrikusteko aukera eskainiz. Iaz 40 erakustokitara heldu zen BMFF filma onenen mostra, eta aurten kopuru hori ere haztekotan da. Hazten ari da. Iaz 10.000 ikusle baina gehiagok jarraitu zituen Mendi Tour saioak, aurten horrek ere gora egingo du. Egutegia eta Mendi Tourra zeuenean hartzeko informazioa: www.mendifilmfestival.com